




Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
194. zkia . 2007ko urtarrila



“KAMIÑAZPI” JOAN ZAIGU

4-10. Herrian barrena

12-13. Elkarrizketa: Itsas Lur Elkarte

15-18. Joxe Mari Etxaburu

20. Bidasoa bailararen deskribapen bat

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31. Abenduko demografia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



San Pedro, 33
☎ 943 11 02 01
20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



 **Aliprox**
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI


TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Errebellin kalea 3 behea

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxe 943 64 44 97

20280 HONDARRIBIA

Kalean Kantuz Hondarribian



Gaur egun bizi dugun globalizatutako eta erritmo azeleratutako giroan, gure ohitura zaharrak desagertzeaz daudela konturatzen gara. Ohitura hauen artean, gure arbasoen euskal kanta eta doinuak kantatzeko zuten ohitura, noski.

Horregatik, hainbat herritan kantu zaharrak - eta ez hain zaharrak - berpiztu nahian elkarrekin kantatzeko ekimena sortu zuten, kantu txapelketa modura edo kalean kantatzeko talde modura. Horrela, gure inguruko zenbait herritan antolatzen diren ekitaldiak aipatuko ditugu, batzuk aspaldi hasiak, besteak berrikiago, batzuk urtean behin edo bitan eta beste batzuk hilero: Baionan (Baionan kantuz, 10 urte), Donibane Garazin (Euskal herria kantuz), Donibane Lohitzunen (Kantu eguna), Donostia (Donostia Kantuz, Intxaurrondo kantuz, Altza kantuz,...), Irun eta Hendaia (Bidasoan kantuz 2 urtez aritu dira), Errenterian (Kantu-jira, orain dela gutxi sortutakoa)....



© Floren Portu

Hondarribian, 2005.urtean antolatu genuen KALEAN KANTUZ lehen aldiz. Kantu bilduma bat argitaratu eta kantatzeko zaletasuna zutenen artean dohainik banatu genuen. Asmoa hauxe zen: kantatzea gustuko duten herritarrek bildu eta kalean zehar kantuan ibiltzea. Ez genuen abesbatza bat osatzeko asmorik, giro goxoan elkarrekin une goxoa igarotzekoa baizik. 2006.urtean kantu bilduma berri eta bi alditan bildu ginen, gero eta arrakasta handiagoarekin. Urte

bukaeran, hiritar batzuk maizago antolatzea eskatu eta gero, bilera bat egin zen. Horregatik, 2007 urtean indar berri batekin gatz.

Urtarrilaren 14an jende ugari bildu ginen berriz San Pedro kalean, eta han erakutsi zen hilero elkartzeko aukera baze-goela. Horregatik, bilera bat eginen da otsailaren hasieran hurrengo ekitaldiak antolatzeko. Bertan parte hartzeko interesatuek Euskara Zerbitzura deitu: 943 11 12 41 telefonora.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

zifcomunicación@terra.es

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Jexux Mari Mendizabal

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK URTARRILA ETA OTSAILEAN

- 21- MAYI MARTINEZ Almirante Alonso kalea, z/g. 943 642191
- 28- SAGRARIO FIZ Sokoa Merkatalgunea 943 644316
- 4- ALMAJANO Mendelu, 26 943 640068
- 11- ALAMEDA Harresilanda, 9 943 645798
- 18- Erauskin San Pedro, 22 943 641018
- 25- MAYI MARTINEZ Almirante Alonso kalea, z/g. 943 642191

TXANDAKO OKINDEGIAK URTARRILA ETA OTSAILEAN

- 21-ARRATIBEL Mendelu auzoan 943 641975
- 28- GARMENDIA Portuan 943 641136
- 4- MARTINEZ Kale Nagusia, 17 943 641212
- 11- ARRATIBEL Mendelu auzoan 943 641975
- 18- GARMENDIA Portuan 943 641136
- 25- MARTINEZ Kale Nagusia, 17 943 641212

Udalak Lokarri erakundeari laguntza eskaini dio

Udalak abenduaren 27ko Osoko Bilkuran erabaki zuenez, 'Lokarri', akordioaren, kontsultaren eta berradiskidetzearen aldeko herritarren sarea deituriko erakundeari dirulaguntza bat ematea proposatu zuen.

Hamahiru urteko bere ibilbidean, Elkarriren eginkizun nagusia haxe izan zen: indarkeriarik eza bultzatzea, eta, horrekin batera, giza eskubideak, inor baztertzen ez duen elkarrizketa, aniztasuna, alderdien arteko mahaia eta printzipio demokratikoak sustatzea. Iaztik, Lokarrik Elkarriren lekukoa hartu du helburu horien bilaketan.

Lokarriren helburu nagusia da akordio plurala eta herri kontsulta bultzatzea da, horiek baitira gure gizarteak eskatzen eta behar duen adiskidetzearen ardatzak. Lehen helburu horrekin bat egiten dute beste hiru hauek ere:

1. Berradiskidetzea prestatzen laguntzea, diskurtso eta proposamen integratzaileak defendatuz.

2. Bake prozesuan herritarren partaidetza sustatzea eta erraztea.

3. Orain arte lortutakoari eustea: indarkeriarik eza eta elkarrizketa, berauek baitira adiskidetzearen atariko baldintzak.

Udalak Lokarriari emandako dirulaguntza 2175 eurokoa izan da.

Isabel Arrillagaren "Masque i" izango da inauterietako irudia



"Masque I", Isabel Arrillaga Berasartek aurkeztutako lana izango da datozen Hondarribiko Inauterien irudia. Kultura departamentuak antolatzen duen lehiaketaren garailea izan da, epaimahaiak hala erabaki ondoren. Jabier Alkain, Lupe Amunarriz, Ramón Iridoy, Xabier Gezala zinegotzia eta Marilis Goñi, Kultur Teknikaria eta idazkariak osatu dute epaimahaia.

Lehiaketara 19 lan aurkeztu ziren. Inauteriak aurtan otsailaren hirugarren aste-buruan ospatuko dira.

Alde Zaharreko TAO txartelak otsailaren 1ean jarriko dira indarrean



TAOko txartel berriak otsailaren hasieran hartu beharko dira

Udaltzaingotik jakinarazten denez, otsailaren 1ean jarriko dira indarrean TAO txartel berriak hirigune historikorako. Data hori arte 2006ko txartelek balio izango dute. Hurrengo asteetan 2006an txartela eskatu zuten bizilagunei gutunak bidaliko dizkiegu, 2007rako ezaugarriak errazago eskuratu ahal izateko. Gainera txartela lehen aldiz eskuratu nahi duten hiriguneko egoiliarrentzat epea irekiko da.

Lehen fase honetan Alde Zaharreko bizilagunek txartel hauek eskuratu ahal izango dituzte:

10 zk. Txartela: Txartel bakoitzeko 30 euro ordainduz Alde Zaharrean TAO dohainik izateko eskubidea duzu.

13 zk. Txartela: Txartel bakoitzeko 50 euro ordainduz, Alde Zaharra, Ramon Iribarren, Foru kalea, Hondartzako aparkalekua eta Bentako aparkalekuan egoiliar tarifa izateko eskubidea duzu.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Saihesbide berriak zenbait norabide aldaketa ekarriko ditu

Hondarribiko bigarren saihesbidearen eraikuntza, Mendebaleko Bidea bezala ezagutzen dena, etengabe aurrera doa. Gipuzkoako Ahaldu Nagusia den Joxe Joan Gonzalez de Txabarri izan zen ekitaldi batekin Hondarribiko saihesbidearen bigarren faseko lehen harria ipini zen maiatzaren 8an, eta hil honen amaieran edo datorrenaren hasieran egingo da irekiera ekitaldia.

Saihesbide berri honek zenbait norabide aldaketa ekarriko ditu. Luis Miguel Iturrarte, Hiri Segurtasunerako zinegotziak aldaketa hauen zergatiak azaldu zituen. "Zenbait norabide aldatu beharrean gaude, beti ere hiritarren onura, seguritatea eta hiriko sarrera eta irteerak bermatu eta hobetzeko asmoarekin".

Azpiegitura berri honekin, gaur egun hiri barrua zeharkatzen duen ibilgailuen kopuru handi bat bereganatuko duen errepidea bukatuta geldituko da, eta horrek zalantzarik gabe, herriko gunearen egoera eta zirkulazio baldintzak asko hobetuko ditu.


"Mourlane Mitxelena kalea goruntzakoa izango da Torreako biribilgunera heldu arte. Han, beste aldaketa bat egongo da, Baserritar Etorbidearen gune hau, Koparaino heldu arte, goruntzakoa izango baita, errepidearen alde batean aparkalekuak eta zuhaixkak jarriko ditugularik" esan zuen Iturrartek.

"Era berean", gaineratu zuen zinegotziak, "Masti kaleak beheruntzako norabidea izango du Donostia kalera heldu arte, Kattalin Erauso kaleak norabide bakarra izango du Baserritar Etorbidera iritsi arte, obrak aprobetxatuko ditugularik kalearen ordenazio bat egiteko. Azkenik, Ttarratenea kalea, saihesbidearen parez-pare doana, beheruntzako izango da ere, eraiki berria den Cartonajes-eko biribilgunera heldu arte".

Udaletik hiriaren goikaldean bizi diren hiritarrek azpiegitura berri hau erabiltzea espero da, baita uda aldera Hondarribira etortzen diren bisitariek ere, hiri barneko trafikoa biziki arinduko delakoaren ustetan.

Saihesbide berriak "bi semaforo izango ditu, beste hainbat oinezkoentzako pasabide egongo dira eta, eta aurrerantzean abiadura neurtzeko radarrak jarriko ditugu" aurreratu zuen Iturrarte zinegotziak. Hortaz gain, "Kopa bezala ezagutzen duguna, eraldatua izango da, hori biribilgunetxo bat joango da eta. Baliteke Kopa biribilgune horren gainean joatea, baina erabaki hau ez da oraindik hartu eta itxaron beharko da".

Obrak joan den otsailaren 8an esleitu zitzaizkion Mariezkurrena eta Zubieder enpresek osatutako aldi baterako enpresa elkarteari, 4.680.000 eurotan eta hil honen amaierarako edota otsailaren haserarako amaituko dira, eguraldiak laguntzen badu.



2007. urterako udal aurrekontuak

2006ko abenduaren 19ko Osoko Bilkuran onartu ziren 2007. urterako udal aurrekontuak. Urte berriarekin batera, urtarilean zehar departamentu bakoitzeko zinegotziak aurrekontuak aurkeztu dizkio herriari horretarako komunikabideak erabili dituelarik, ohi duen bezala.

Udaltzaingoaren aurrekontua %15 igo egin da

Hiri Segurtasuneko zinegotzia den Luis Miguel Iturrartek Udaltzaingoak 2007. urterako daukan aurrekontua aurkeztu zuen. Kopurua 2.181.570 eurokoa da, iazkoarekin parekatuta 15,02 igo delarik. Orduan 1.886.831 euro izan ziren.



Luis Miguel Iturrarte Hiri Segurtasunerako Zinegotzia

Iturrarteren hitzetan, "Udaltzaingoak inbertsio aldetik esfortzu handia egingo du, ia 346.000 euro hain zuzen ere. Partida garrantzitsuenak, garabi berri baten erosketa izango dira, orain daukagun bat zaharkituta dago eta. Hortaz gain, 125 zentimetro kubikoko moto bat hartuko dugu, eta hori gutxi balitz, Udaltzaingoaren lan administratiboa errez-

teko sistema informatiko berri bat erosi eta abian jarriko dugu".

Udaltzaingoak TAO makinetan ere berrikuntzak burutuko ditu, makina berriak erosiko dira eta. "Legediak dioenari jarraiki, kreditu txartelak onartzen dituen makinak ipiniko ditugu, ahal den neurrian hiritarrari lanak errezteko" esan zuen zinegotziak.

2007ko aurrekontuak gorakada handien izan duen ataleta-ko bat langileena izan da. "%10,17 igo da. Alde batetik, Aste Santutik aurrera Amuten udaltzain bat jarriko dugu, beharrezkoa dela ikusi dugulako, eta udako hilabeteetan egunero bi udaltzain gehiago izango ditugu, eta beste bat Hondartza inguruan gauzez aritzeko" esan zuen Iturrartek.

Euskarako aurrekontua 541.230 eurokoa da

Euskarako departamentuak, bere zinegotzia den Kattalin Nobliaren eskutik, aurtengo aurrekontua aurkeztu du gaur goizean Udaletxeko Areto Nagusian burututako prentsau-



Kattalin Noblia Euskara Zinegotzia ren irudi bat

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?
NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...
EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO
20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK
BAKARRIK
3,58.-euro
foto FRANAN
 Zuloaga,4
 Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE**ERRETERIA**

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

ntua 20.634.097 eurokoa da

rrekoan. Orotara, 541.230 euro erabiliko dira bi atal nagusitan: departamentua beraren aurrekontua eta Udal Euskaltegiaren aurrekontua.

"Antolatzen ditugun jardueretarako 77.900 euroko aurrekontua dugu, eta hor nagusiki Neguko Jardunaldietarako 15.000 euro, Kirola Euskaraz Eskualdean ekintzarako 11.500 euro, 10.500 Bordari eta Satarka literatur lehiaketarako edota 13.000 euro eskolaz kanpoko jarduetarako" esan zuen zinegotziak.

Argitalepenetan Euskara departamentuak 45.000 euro inbertituko ditu, gehienbat Hondarribia aldizkariarentzat. Laguntzei dagokionez, "29.600 euro bideratzen ditugu, 9.800 udako ikastaroetarako, 3.600 Barnetegi eta UEU-ra joateko eta 5.500 euro, aurreko lehen aldiz burutuko den jarduerari berri batentzat. Urtxintxa elkarte, hiriko bi ikastetxe-rekin aintzinako jokuak berreskuratzeko ekimen berri batekin hasiko gara" gehitu du Nobliak.

Udal Euskaltegiari dagokionez, aurrekontua 242.687 eurokoa da. Langileentzat 195.800 bideratuko dira, gastuetarako 37.000 eta beste 2.500 euro eraikinean egin beharreko zenbait konponketa egiteko.

Hezkuntza departamentuak bi milioi euro bideratuko ditu

Hezkuntza departamentuak urte honetarako 2.118.949 euroko aurrekontua dauka. Isabel Olazabal zinegotziak prentsaurrekoan aurrekontuaren atal nagusienak azaldu zituen.

"Aurtengo daukagun proiektu esanguratsuenak Loraitzeko haurtzaindegia da, eta horretarako 1,4 milioi euro prestatu ditugu. Proiektua esleitu egin zen, eta orain egiten ari da, baina zaila da eraikuntza lanak aurreko hastean. Behin hasita, gure asmoa Loraitzen 2009. urterako haurtzaindegia bat izatea da" esan zuen zinegotziak.

Gainera, Hezkuntzatik 27.500 euro bideratuko dira jarduerari sozio-kulturaletarako, hala nola igerian ikasteko ikasta-

roak, kontzertu didaktikoak, Klik eta Klik programa, Tolosa-ko XXV. Nazioarteko Jaialdiko emanaldiak, eta Udalak antolatzen dituen Gabon Kanta Jaialdia eta Haur Olentzero Lehiaketa.



Pedro Aginagalde ikastetxea berri egingo da

Gizarte Zerbitzuetako aurrekontua 1.134.000 eurokoa da

Gizarte Zerbitzuetako departamentuak aurtengo aurrekontuak aurkeztu ditu gaur goizean Udaletxeko Areto Nagusian burutu den prentsaurrekoan. "Orotara 1.134.108 euro dira" aurreratu du Maite Pelaez zinegotziak.

"Azken urteotan departamentu honetatik burutzen ari garen lanari jarraipena ematen dion aurrekontu bat da. Partida garrantzitsuenetako bat Etxez-Etxeko Laguntzari ematen dioguna da, 397.000 eurokoa. Hemen sartzen dira etxe egiten den zerbitzu hau, Kalez-Kale hitzarmena eta Tele Alarma, ia 100 erabiltzaile dituen" esan du Pelaezek.

Kasino Zaharra eta Itsas Etxea jubilatuen egoitzetan Udalak ia 86.000 € inbertitzen ditu, beste 225.000 € gizarte bezterkeria ekiditeko laguntzetarako eta familientzat, ia 98.000 € Gobernu Kanpoko Erakundeentzat (aurrekontu



**BAR
ONDARRIBI**

**AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN**

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

osoaren %0'7), eta beste 63.000 € Gertu programarentzat. Azken hau, Bidasoa Bizirik-ek bultzatuta, helburu nagusienetako bat denbora luzez langabezian eta bestelako arazoak dituzten emakumeek Eguneroko Bizitzako Zerbitzuen eremuan sustaturiko enpresak sortzea. Horretarako, sentsibilizazio-ekintza, ikasketa, aholkularitza eta sorturiko enpresei laguntza emango zaie, biztanle mota honen beharretara egokitutako neurri berritzaileen laguntzarekin.

Gazteria Departamentuak milioi erdi euro pasatxo aurkeztu ditu

Gaur goizez Udaletxeko Areto Nagusian burututako prentsaurrekoan aurkeztu den bigarren aurrekontua Gazteria Arlokoa izan da. Maite Pelaez zinegotziak egin du, eta bere hitzetan, "kopuru osoa 525.278 eurokoa da, lau zati handitan banatua. Alde batetik, Gazte Informazioa dago, 38.960 euroko aurrekontuarekin".

"Bigarrenik hor dago ere Saindua Gaztelekua, 78.185 euroko aurrekontuarekin. Gazteak Topalekura asko hurbiltzen dira baina agian oraindik ez dute behar hainbat partehartzen ikastaroetan, beraien partehartzea gehiago bilatu behar genuke" esan du Pelaezek.

Zinegotziak gehitu duenez, "aipatu behar da Udalak jarduera sozio-kulturaletan egiten duen esfortzua 78.455 eurora heltzen baita. Garrantzitsuenak, ekonomia aldetik behintzat Hondarribia Abentura eta Udaleku Irekiak, bien artean ia 49.000 € dira".

Azkenik, partida garrantzitsuena Prebentzio Komunitarioa

Nagusian burututako



Maite Pelaez, Gizarte Zerbitzuak eta Gazteria Arloko Zinegotzia

zerbitzuari zuzentzen zaiona da, 290.010 eurokoa, iazkoa-rekin parekatuta 30.000 € igo delarik.

Psylocibe Eneari dagokionez, aurten ez da laguntzarik aurreikusten. "Iaz 519.000 euroko laguntza onartu zen. Gure asmoa laister Boletinean obrak egiteko lehiaketa agertzea da eta aurten eraikuntza lanekin hastea espero dugu" amaitu zuen Pelaezek.

Zerbitzuen Departamentuan 4.102.094 euro mugituko dira

Udalaren departamentu nagusienetako bat, aurrekontuari begiratzat, behintzat, Zerbitzuetakoa da. Alor desberdinak sartzen dira departamentu honetan. Honako hauek dira, bakoitza bere aurrekontuarekin:

- Argiteria Publikoa: 571.841 €
- Parke eta Lorategiak: 797.778 €
- Bide Garbiketa: 960.997 €
- Hilerria: 105.650 €
- Hondartza: 355.069 €
- Zerbitzu Orokorrak: 1.454.501 €
- Nekazaritza: 115.189 €

Hirigintza Departamenturako 1.545.000 euro bideratu dira

Hirigintzako aurrekontua izan da aurkeztutako azkena. Aitor Kerejeta Zerbitzu eta Ogasuneko zinegotziaren esku egin zuen. Kopurua 1.544.706 eurokoa da, eta lau atal nagusitan banatzen da: pertsonala edo langileria, Amuteko Kirol Zonaldea, Kai Zaharra eta Zenbait Proiektu.

- Pertsonala: 373.805 euro
- Amuteko Kirol Zonaldea: 450.000 €
- Kai Zaharra: 480.000 €
- Zenbait proiektu: 150.000 €

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES



Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema




ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

-Egungo Udaletxea birgaitzea: 60.000 €
 -Udal lur soruen karto-grafiko berria: 54.000 €
 -Baserritar Etorbidea, lehen fasea: 30.000 €
 -Argazki Artxiboa: 6.000 €

5 milioi euro baina gehiago Kultura, Kirolak, Merkataritza eta Turismo departamenturako

2007. urterako bost milioi baina gehiagoko kantitatea bideratu dira Kultura, Kirolak, Turismo eta Merkataritzako departamenturako. Horietatik, 4.121.618 € ohiko gastuetarako dira eta 1.108.000 € Hondarribia Lantzenek inbertsioetarako erabiliko dituenak.

Xabier Gezalak departamentuko zinegotziak, gaur goizez Udaletxeko Areto Nagusian burutu den prentsaurrekoan azaldu duenez, "aurreko urteetan egin diren aurrekontuen jarraipen bat dela esan daiteke. Alor handi batzuk ditu, kirolak eta kultura adibidez, eta beste batzuk ez hain handiak, aurrekontuari dagokionez, merkataritza eta turismoa hain zuzen. Kulturari adibidez, aurtengo aurrekontua 2.165.791 eurokoa izango da, eta Kirolakoa, 1.286.777 eurokoa".

Merkataritza eta Turismorako ordea, Udalak 144.906 € bideratzen ditu. Beste partida garrantzitsu bat Liburutegira zuzentzen da, 177.816 €, hain zuzen. Udal Artxibategiaren aurrekontua aldiz, 78.500 eurokoa da.

Zinegotziaren iritziz, "garrantzitsua da azaltzea



Aitor Kerejeta Zerbitzu eta Ogasun Zinegotzia

zenbait alorretan gorakada nabaria izan dela, hala nola, Jai Nagusietan. Bizitzan denak gora egiten du, eta jaietarako ekitaldiak antolatzeak kostu handia dauka. Hori egin ahal izateko, aurtengo 267.828 € erabiliko ditugu".

Inbertsioak aipatzerakoan, Gezalak zenbait aurreratu zituen. "Amuteko kirol zonaldean 550.000 € inbertituko dira, Arraun Elkarteko gimnasioa, eta bulegoak birgaitzeko beste 230.000 €, kopuru alde-tik nagusienak".



Xabier Gezala Kultura, Kirola, Merkataritza eta Turismo Zinegotzia



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
 OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
 KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
 Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
 20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com




VITALICIO
 GENERALI ASEGURAK Rgs. Zbk. 3625

San Pedro 1
 20280 HONDARRIBIA
 Serapio Mugika, 2
 20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
 Tel. y Fax 943 64 54 38
 Tel. y Fax 943 00 46 28

Maria Eizagirrek 100 urte bete ditu



Urtarrilaren 8an Maria Eizagirre Ibarguren hondarribiarrak 100 urte bete zituen. Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia den Maite Pelaez eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari moduan Fernando Etxeberria, Jaizubia auzoko Peñaenea Berri baserrira joan ziren lore sorta batekin zorionak ematera. Maria 1907ko urtarrilaren 6an jaio zen Zarautzen. 1935eko otsailaren 18an ezkondu zen Irunen Antonio Peña Loidirekin. 4 seme alaba, 7 biloba eta 12 birbiloba izan ditu.



Azken asteotan Turismo Bulegoan birgaitze lanak burutu dira. Legediari jarraiki, ezindutako pertsonentzat bulegorako sarbidea erreztu egin da, irudian ikus dezakegun moduan.

Alkartasuna Elkartea barrutik eta kanpotik birgaituko da

Udala eta Behemendi Elkartearen artean sinatuko den hitzarmena onartzeko proposamena, ahobetez onartu zuten zinegotzi guztiek urteko azkeneko Osoko Bilkuran. Hitzarmen honen ondorioz, Udalak 124.000 euro jarriko ditu, 48.000 Behemendik, Alkartasuna Elkartearen ondoan, obraren zuzendaritza eta hobekuntzen proiektua burutzeko.

Hezetasun arazoak sortzen dira, eta ondorioz, saneamendu obrak egingo dira, hormigoizko hormak egingo direlarik, horrela lurri eustearekin batera saihestuko da hegitik erortzen den urak lokalean putzuak sortzea, eta bestetik, lur-zatia ixtea. Hortaz gain, Alkartasuna elkartearen teila-tua konpondu eta iragazgaiztu nahi da.

Udalaren ustez, Behemendi erakundeak Europar Batasunaren dirulaguntzak jaso ditzake proiektua osoki gauzatzeko. Beraz, "hobe zen" pilotalekua nekazal eta mendi erakundearen bitartez sustatzea, dirua baserritarrei zuzenean luzatu baino. Badirudi, pilotaleku hau Jaizubia-koren antzekoa izango dela.



Alkartasuna elkartea eta ingurua birgaitu egingo dira

Aise
1971-1974

Aise Iruñean eta
orain **Hondarribian!**

Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala
Juan Laborda 2, behea
20280 Hondarribia
Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92
E-mail: aisebidaso@euskalerrria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

Erregeek ilusioa eta poza ekarri dute hiriko haur eta gazteentzat

Igaro dira beste urte betez Ekialdetik etorritako Erregeak Hondarribitik. Urtarrilaren 4an Postaria etorri zen, hiriko haur eta gazteen gutunak jasotzeko asmotan, eta hurrengo egunean Erregeen txanda izan zen. Mendelura heldu ziren lehenik, handik Amutera igaro zirelarik. Han isasontzian sartu eta Kai Zaharrera abiatu ziren. Iru-dietan agertzen den moduan, sekulako jendetza bildu zen ilusioz beterik Erregeak noiz helduko. Portuarraken Asoziazia elkartearen eskutik, ibilbidea jarraitu zuten, Matxin de Arzu kaletik aurrera, Zuloaga kalean bira eman eta Hermandadera igo zirelarik.

Ehundaka haur, gazte eta heldu bildu ziren urteko egunik berezienetakoa den honetan. Datorren urtea noiz helduko zain geratzen dira orain gaztetxoek, baina lasai, iritxikoda eta egun ederra, uste baina lehenago gainera.



Erregeak Kai Zaharrera iritsi ziren. Arg: F. de la Hera



Jaiotza Biziduna abenduaren 25ean eta urtarrilaren 5ean antzeztu zen Arg: Floren Portu



EXPERT GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkartea • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

Itsas Lur Elkarte

Jose Antonio Salaberria



Gizon umila dela nabari du hizketan hasi orduko eta gazte jendearen ondoan egoteak gaztetu egiten duela aitortu digu. Jose Antonio Salaberriaz ari gara, *Itsas Lur* elkarteko ordezkariaz, bera baitugu hilabete honetako elkarrizketaren txokora ekarri dugun protagonista. *Itsas Lurri* buruz hamaika gauza kontatu dizkigu, horien artean, elkarte bazkide batzuentzat elkarte ez ezik etxe ere badela, eta euren teilape propioa bezain ondo zaintzen dutela (beste elkarte askorekin gertatzen den moduan). Hona, bada, Jose Antoniorekin batera pasatako arratsaldetik jasotako uzta.

Ze motatako elkarte da Itsas Lur? Nola sortua?

Itsas Lur elkarte gastronomikoa da eta Butron pasealekuan dago, Arraunlari jatetxearen ondoan. Elkarte sortzeko ideia hiruzpalau lagunena izan zen; adiskide talde txiki honek lokalean sartzeko aukera ikusi eta koadrilekin hitz egin zuen. Ni ez nintzen elkartearen sorrera hartan egon; koadrila batek bertan sartzeko erabakia hartu zuen eta ni koadrila horretan nengoen. Horrela, gure lokala ?etxabea dena?, 1978an erosi eta konpontzen hasi ginenean, egurrezko oso biga dotoreak agertu ziren. Horregatik, gurea oso txoko polita dela esan daiteke, gainerako beste elkarteak gutxietsi gabe.

Itsas Lur 105 bazkidearekin abiatu zen; lehen esan bezala bazkideak oinarrian koadriletan antolatutak zeuden. Halaxe, etxabea erosi eta bazkide gutxi batzuen lanari esker txukundu zen lokala. Geroztik ia 30 urte iragan dira eta egun 127 bazkide gara guztira, baina urteak ez dira alferrik pasatzen. Horregatik, orain bazkide erretiratuaren irudia agertzen hasi da, eta, honenbestez, bi bazkide mota ditugu: batetik, bazkide aktiboak eta, bestetik, aktiboak ez diren 40 bazkide inguru (aktiboek ez bezala erabakietan parte hartzen ez dutenak).

Gastronomiari lotutako jardueraz gain, antolatzen al duzue bestelako ekintzarik?

Gure elkartearen jarduera nagusia otorduei lotuta dago, baina besterik ere egiten dugu. Gure arraun clubari laguntza luzatzea da gure beste jarduetariko bat, izan ere, ematen dizkiguten pozak nolabait ordaindu beharrean gaude. Horrela, gugandik gertu dauden estropadak ikustera joateko autobusa antolatzen dugu, eta denboraldia amaitzean, omenaldi gisa bazkaria ere egiten dugu. Horretaz gain, elkartearen lehenengo urteetan gabon abesbatza ere izan genuen Eugenio Ortizen zuzendaritzapean. Bertako kide batzuk elizako koruan abesten zuten eta oso ahots ona zutenak ere bazeuden; ni bezalako beste batzuk, berriz, traba besterik ez genuen egiten, kar-kar-kar!

Oker ez banago elkartean bazkide guztiak gizonetakoak zarete...

Bai, hala da, nahiz eta bikoteak etortzen diren gurea eta emakumezkoak erreginak bailiran tratatzen ditugun. Guretzat emakumeak ohorezko gonbidatuak dira elkartean. Bazkideak asteburuetan, jaietan eta jai bezperetan etortzen dira, batik bat. Izan ere, horrelako elkarte bateko bazkide izateak duen



Ainara Elizondo

abantailetariko bat otorduak jabetxe batekoak baino merkeagoak izaten direla da. Funtzionamenduari dagokionez, elkarte gehienek bezala geuk ere zuzendaritza-batzordea dugu eta urtero aldatzen da. Beti talde bera dago (hiruzpalau bazkidek osatua) eta talde hau arduratzen da elkarte mantendu eta zaintzeaz; gainerakoak, berriz, talde honi laguntzen ahalegintzen gara. Kuotari dagokionez, bazkide aktiboek urtero kuota ordaintzen dute; erretiratuok, aldiz, ez. Kuota honekin gastuen zati bati aurre egiten diogu eta gainerakoa, lokalaren erabilerari esker lortzen diren diru-sarrerez ordaintzen da (upeltegia erabiliz lortzen dena, sukaldea erabiliz...).



Bazkide berririk onartzen al duzue elkarteetan?

Ez, ez dugu bazkide berri gehiagoren premiarik. Bazkide bat hiltzen denean bere semeak, anaiak... hartzen du bere lekua. Garai batean egia da jende gaztearen beharra ikusi eta elkartearen ateak zabaldu genituela, baina egun kupoa itxita dago.

Nola ateratzen duzue aurrera Itsas Lur?

Laguntzarik ez dugu jasotzen eta beharrak, berriz,

aldian aldikoak izaten dira. Orain, esaterako, ke-erazgailua berritu beharra dugu. Autofinantzatzearekin moldatzen gara.

Ondo konpontzen al zarete elkarrekin?

Edozein elkartetan beti daude tirabirak, baina ondo moldatzen gara elkarrean artean. Elkartearen funtzionamenduan eragiten duen liskarrik ez dago.

BAR · RESTAURANTE LARRA

C/ DAMARRI, 4
20280 HONDARRIBIA
TEL.: 943 64 27 04



Pintxos, Bocadillos, Platos Combinados,
Menús del Día, Menús a la Carta.



GESTIÓN:

CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

GESTIOA:

- * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
- * ASEGUROAK

Euskaldunon antzinako sustraiak



Martin Iturbe

Euskaldunon antzinako sustraien berri ematen hasia nintzen aurreko bi idazkietan. Herri guztietan gerta ohi den bezala, gurean ere, bizitzarekiko ikuspuntu eta begira-neurriak, ipuin, sinbolo, sineskeria eta abarretan nabarmentzen dira. Garai eta herri bakoitzak bere sinboloak ditu, nahiz eta "GAI" berdinari "ESANAHI" ezberdiña ezarri.

Aurrekoan, lizarrondoari buruzko apaimena egin nuen, eta, landareki hau bedeinkatzeko eskabidea egitera letorkidakeenari, "EZEZKOA" emango niokeela. Sineskeria zitekeena, begirada berriz jantziz gero, esanahi sakonago eta gaurkotaz arnasten bait dut. Horrela, antziñetako oinarrietan sustraituz, sinbolo bera erabiliz, bizileku berria eraikitzeke gai aurkitzen dut nere burua.

Dena den, eta aurrekoan aipatu nuen bidetik, E. Capdevila-Esteban-en eskutik hartuko ditut ondoren agertuko direnak.

Erdi Arora joko dugu, herri honek erabili izan duen pentsamoldea nolakoa izan den ikusteko eta zertan oiñarritu duen bere barne-bizitza jakin ahal izateko.

Lehen Erdi Aroan (V - IX mendeak k.o.) eta Euskal Herriaren hegoaldeetik barren aldera, erlijio berri bat dator euskal kultuaren erdira: KRISTAUTASUNA.

1000. urtean baino lehen Euskal Herriaren iparrerraino zabalduta dago, nahiz eta kristautasuna lehengo erlijio-sineskerekin batera bizi. Erdi aroa bikatzera, kristau erlijioa naguzitzen da euskaldunen artean.

EUSKAL HERRIAREN ANTZINAKO ERLIJIO - ESPRESIOA

Asaba zaharregandik ahoz aho etorri zaizkigun hitz eta mitoetatik eta ohitura nahiz jaietatik abiatu-rik, Euskal Herriak aintzinatean izan zuen erlijioaren bizipena begirada zabal batez harturik, honetan bilgenitzake haren ahri nagusienak.

-Euskal gizonak ez du Jainkoa kultuko ekintzen edo mito-liburu- en hesperu konkretu eta hertsia baten erdian an bari, bizitzako ekintzen erdian baino, bizitzako gorabeherari loturik: dagoen lekuan eta bizi duen egoeraren erdian topo egiten du sakratuarekin.

-Honen ondorioz, aintzinako euskaldun honen bizitzan erraz agertzen da errito-ekintza: ehizea era- kartzeko magia edo uno konkretuetako formu- lak... Gehienbat ez dago pertsona bereizirik horiek egiteko (apaiz, mego...) , norberak egiten ditu, baizik, sakartuaren presentzia nabarmen egiten zaion unean.

-Aintzinatek datorkigun euskaldunenerlijio-sentipen hau animismoaren aztarna ugari josia dago. Hau da: naturako nahiz astroetako fenomenoak, hauta- ko bakoitzak bere baitan duen izpiritu baten eragi- nez gertatzen dira, Izadi osoa, honela euskaldun harentzat izpitrituz josia agertzen da. Azpimarratze- koa da nola joera honek erakusten diguen nahiko argi eta garbi euskal erlijio-estruturak hauen aintzin- tasuna.

(Jarraituko du)

Joxe Mari Etxaburu "Kamiñazpi"

gure artetik joan da

Euskera debekatuta zegoenean ere, bere bizitza osoa euskeraren alde aritu zen. Ondarrun jaioa, ezkondu ostean Hondarribira etorri eta bertan eman du bizitza osoa. 1966an, "Ondarribiako kondaira" liburua idatzi zuen.

Etxaburu Ondarroan jaio zen, 1913ko irailaren 23an. Haurra zelarik, eskolara joan zen, baina 12 urte zituela lanean hasi zen, Ondarroako arrain lantegi batean. 15 urterekin musika bandan sartu eta solfeoa eta saxofoi altua ikasi zituen. Osasun arazoak zirela eta, "Kamiñazpi" ez zen gerrara joan eta Donibane Lohitzunera egin zuen alde. Han urtebete egin zuen, gero Landetara joan zen eta beste urte bat igaro ostean, Donibane Lohitzunera itzuli zen, harik eta Bigarren Mundu Gerra hasi zen arte.

Azkenean, Ondarroarako bidean zela, preso hartu eta hainbat kartzelatan izan zen. Libre geratu zenean Ondarroako bere etxera joan zen.

Ezkondu ostean Hondarribira etorri zen bizitzera eta han eman zuen bizitza guztia. 20 urte zituela, herriko berriak idazten hasi zen "Ekin" aldizkarian. Gero, handik aurrera, Euzkadi egunkarian idatzi zuen, "Iturri ondo" eta "Iturrondo" ezizenak erabiliz. Gerra amaitu ondoren, 1957an, "Zeruko Argia" aldizkarian hasi zen. Orduan hautatu zuen "Kamiñazpi" ezizena. Goiz "Argi", "Karmel", "Anaitasuna", "Jakín" eta "El Bidasoa" aldizkarietan ere argitaratu zituen bere lanak. Gainera, guzti honetaz gain, "Pan-Pin" haurrentzako aldizkarian, berak prestatu ohi zuen bizkaierazko orria.

Idatzitako liburuak:

- Ondarribiako kondaira (Itxaropena, 1966)
- Txolintxu (Edili, 1972)
- Neure lau urteko ibilerak (Etor, 1988)
- Neure idazlan bilduma (Itxaropena, 1991)

Lortutako sariak

Sari ugari jaso zuen, besteak beste, Irungo lehen literatur lehiaketako sari nagusia, "Errijaik eta San Martzialgo Alardea" lanagatik, edota Gernikaren 600. urteurrena zela eta, herri horretan antolatu zuten lehiaketako bigarren saria, "Maitasunaren arantzak" lanarekin.

Bizitza guztian euskararen alde lan egin zuen. Euskara bera debekatuta zegoen garaian, gramatika ikasketa batzuk prestatu zituen eta Ondarroan zegoen maisu gali-ziar baten laguntzaz, euskara irakasteko tokia lortu zuen.

1966ko azaroaren 25ean, euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak. 2001eko azaroaren 30ean, Hondarribiko Udalak omenaldi hunkigarri bat eskaini zion. Hantxe bildu ziren Joxe Mari, bere sendia eta hondarribiar ugari, gizon zintzo honi hain merezita zuen omenaldia eskaini ahal izateko.

"EUSKARAREN BEHERAKADAK" artikuluetatik hartua (gure mendea Aldizkaria-Kamiñazpi, 1963-VII-23) Ba euskarari balioa emotea gure eskuetan dago. Gugaz bizimodua daukanari euskara eskatu gure berbeta hau daiala exijidu. Nik langile baten beharra baneuka era honetan iragarria izparringian jarriko neuke: mekaniku bat bihar dot hola edo hala lanian dakiana eta euskara be badakiena."

"KAMIÑAZPI" izenordea: Nondik dator?

Ondarruko auzo baten izena da "Kamiñazpi", Etxabururen jaioterriaren toponimo bat.



Biotz-biotzez erkitzen
diot Ondarraia'ko udalari
Kondeira liburutxoari.

Ondarrabià 17-9-1979

Ekaburn Tar Jose Mari

Joxe Mari Etxaburuk idatzitako liburuetako bat "Ondarrabia'ko Kondaira" da. Bertan, hiriri buruzko azterketa sakon bat egiten du, bai egitura fisiko aldetik, baita ohitura, sinesmen, xehetasun eta alor ugari aztertzen dituelarik.

Ezkerraldean ikus dezakegu egileak berak Udala-
ri emandako alea nola eskaintzen dion.

Behekaldean aldiz, liburuan zehar Kamiñazpik Hondarribiko hizkerari buruz egiten duen azterketaren zati bat agertzen dugu. 137-141 orrietan zabaltzen du bere azterketa egileak, hona hemen bertan esaten denaren zati bat.

“Ondarribia”ko kondaira liburutik jasotakoa

136

ONDARRABIA 'KO IZKERA

"Bentzia"tik etorritako gaskoifak Donostia'n, Pasai'a'n eta
 Lekeitzo'n beren izkuntza nagusi edo ia nagusi jartzea lor-
 zutela orain bost-sei mende, esaten da. Beintzat millaka ur-
 taituen gure euskerak lortu ez duen ofizialtasuna edo ida-
 tutasun erabiltzea lortu zuen. Ondarrabia'n ere bai, itxura da-
 ra. Anaidiako legedia gaskoifetik gaztekerara aldatzea eraba-
 ian zuten Ondarrabia'ko arrentzaleak 1519'garren urteko
 martillaren 8'an.

...luma,orrek ez du esan nai aldi artan edo aurretik Onda-
...n gaskoñez bakarrik mintzatzen zala.Gaurko liburuetan
...enkeraren aztarnak ez da uzten Ondarrabia'ko Anaidian,
...ndarrabitar arrantzaleak beste izkuntzarik ez darabi-

Garai artan Ondarrabia'ko izkuntza euskera zala garbi ager-
tu duon berria jasotzen du kondairak.1612'garren urtean On-
darrabia'ko alkateak (bi izaten ziran) eta gudaroste agintari-
entzat sermoiak erderaz izan zitezala eskatzen Iruña'ko
kontzilioa idatzi zuten.Ta epaillaren 10'ean andik bidalitako
kontziltza artu zuen Ondarrabia'ko apaiz-buru Abendaño'tar Ga-
ndi'ok agindu auskin: Garizuman'eliza nagusian bi sermoi e-
gin behar zizala;bet,meza nagusitan erderaz,gudarostekoentzat
eta euskeraz ez zekitenentzat eta bestea bexperetan,euskeraz.
Zinbidu au bete bearra zuen bestela eskomikatu izango zala.Bete
erduan erantzun au bidali zien agindua eman zien goterki
guterki:Oroizta zan denpora guztian sermoi bat izaten zala,
erderakoa ta bete euskeraz,erritarren izkuntza orixe zala

137.

una dala,iru-leu mendetan gaskoin izkera zer bait edo ge-
bertan erabili arren emango izkuntza,euskaldun endakoe-
biñopein,euskera izan dala beti baietz ditekete.Gaur ere
igor ere Underbarria'n,jatorriz bertakoak diranak,beaz ba-
ruron batzuek ez baizte,gutxiak dakite euskeraz eta itz e-
tan dutenak ere ez dira gutxi.Baizka kalean erdera da nugu-
beti euskeraz mintzatzen diranak,naiz ta erdera jakin,a-
giriak dira.Ordea,arrantzale sendietako neska gazteak
ez itz egiten dute,atso-agure ta aurrakin izan ezik.Ba-
itietako gazte ta aurren artean ere erdera ari da nagusi-
a,urri urbillekoetan baintzat.

Fontarrabia'ko euskera Goi Naparra'kotzat jotzen dute izenarrariak. Emengo izkera astartu dutenen artean Napoleon garaietako iloba Louis Lucien Bonaparte erreega-gisa nabaritzen da. OBSERVATIONS SUR LE BASQUE DE FONTARRABIE, D'I-
ZENAREKIN argitaratu zuen emengo izkeraren gainean e-
liza ikasketa.

ondoren ondarrabitar izkera nolakoa dan erakusteko kontu-
gat eta esaldi batzuek jarriko ditugu. Esaldiak bi erata-
ondarrabitarrez eta gipuzkera batuan esango genukeanez.

BERRIKETAN

— Hurre artian, portuarrak eta kalitarrak, aixa asarratzen
dute? Elkarri miñ aundiyik eman gabe, noski.

...betan amor. Zuk esaten duzunian ola izango da, bikoiz ez
...esango eskuñak eta ixkerrak etzatela batzuten mutur-joka
...tuen.

00 politikagatik mutur -joka? Balitteke. Ori ere aritu
Nun ikusi duzu zuk olakorik?

1. Ispineko tabernan epelenak artua bada bart erratsian.
2. Zer dira ba joka ibilliak?

Debatua esaten da,pektaria ez.
Ba,ba;tabernako kontuak.Joka ibilliak naiko betiak i-
siren.Toki guzittan pasatzen dire olakuak.Orrek ez du



2001. urteko azaroaren 30ean, Hondarribiko Udalak omenaldi bat eskaini zion Kamiñazpiri. Udaletxeko Areto Nagusian bildu ziren omendua, bere senide, lagun eta euskararen munduarekin lotutako jende ugari.

Kamiñazpi, umiltasun adoretzu bat

Abenduaren azken astean hil zen Joxe Mari Etxaburu 'Kamiñazpi' idazle eta euskaltzain urgazlea. Kamiñazpiri Hondarribiko udaletxean 2001eko azaroaren 30ean egin zioten omenaldian, haren omenezko testu hau irakurri zuen Hasier Etxeberriak, 'Neure lau urteko ibillerak' (Etor, 1988) liburua gogoan.

“Ohore da niretzat Kamiñazpiri eta bere familiari egiten zaion ekitaldi honetan gonbidatua izatea. Esango dizuet zergatik. Neu ere Kamiñazpi Etxaburu tar Jose Mari den bezalaxe, izana bainaiz Etxeberria tar Asier. Bost urte neuzkan orduan eta gure aitek eta beste pare bat heroik, abian jarri zuten Elgoibarko Ikastola ezinezkoa zen garaietan, gaur ehunka ikasle dituen bera. Langintza horretan, nik orduan ez nekien, ezin nuen jakin, Kamiñazpi ibili zen tartean, bere lagun dirudun bati sosak kendu eta gu bezalako neska-mutilak euskaraz hezi nahi zituztenei laguntzen. Eskerrak zor dizkiot, bada, beste ezeren aurretik.

Gure etxean beti present egon den izen horietako bat da Kamiñazpi eta nik bere ezagutza sakonik sekula egin ez badut ere, pentsatuko duzue nolako poza izan zen niretzat, halako batean Hondarribira aldatu nintzenean, gardantxiloaren saltuez ibiltzen ikusten nuen gizon umil hura, emaztea eta semearekin beti martxan ikusten nuen huraxe, gure Kamiñazpi zela jakin nuenean.

Gaurko egun hau dela eta, hemen tartean den gure aitek eskuetan jarri zidan Kamiñazpik berari emandako liburu hau. Lau urteko neure ibilerak deitzen da eta gero banatuko zaizue ekitaldi honetara hurbildu zaretenoi, liburu beroren edizio bat. Baina emango zaizuen hori ez da izango nik esku artean daukadan hau bezalakoa. Tamalez. Begiraiozue ondo: liburu hau Kamiñazpik idatzia da makinaz. Jakin nahiko nuke zenbat ale egin zituen horrela. Bat banaka idatzi ditu orriok tiki eta taka. Enkuadernatu eta arreta handiz zuzendu, eskuz, borragomaz eta guraizez. Nik ez dut askotan ikusi halako artisau lanik.

Eta hasi nintzen irakurtzen, zaharren kontuak aurkituko nituela eta batere gogorik gabe. Eta ez dakit zer pasatu zen, ez nuke asmatuko adierazten, zergatik eta nola, azken lerrora arte ekarri nau idazleak. Hunkiturik batzuetan, irriz beste batzuetan eta beti, gizon batek bizi izandakoak egia borobilez begiak beterik. Gainera, bizkaiera ezin biziagoan, bere txori pausoa bezalakoxeaz: fin eta dantzari. Batere zalapartarik gabe, gozo, ezti eta alai.

Zer du baina, liburu honek apartekorik? Ez da segurutik gure Literatura Handiaren orrietan agertuko. Baina ai, irakurtzen duenak! Baten batek nik ekin diodan bezala ekiten badio, erremedio gabe ikusiko du gizon batek nola aurkez dezakeen bere burua gizonik xumeenaren moduan, gerra gordinaren garaian. Etxaburu baino dorpeagorik ez zen inor inguruetan, berak dioenez. Gaixoagorik ere ez, behartsuagorik ere ez. Koldarragorik ere ez. Bere burua ezdeusa balitz bezala aurkezten du denbora guztian, ez dakiela gramatikarik, liburu apurtxoak baino ez dituela ezagutzen... dena horrela. Denek jaten zituzten sardina ustelak, baina berari egiten zioten kalte tripako minez kixkurtzeraino. Bere antzera, Kamiñazpiren bizikleta zen kaxkarrena eta gehien hondatzen zena, baina guztiek berari zioten eskatzen txirringa norabait joan behar zutenetan. Eta berak beti laga.

Nola ez, bada.

Liburu honen kakoa, esaten ez dituenetan dago. Bere burua azkenaren pare jartzen du beti, baina, paradoxikoki, gutxieste horren bitartez lortzen duen erretratua gizon handi batena da. Gizon zintzo, zuzen, abertzale, euskaltzale eta katoliko sendoarena. Baina kasu, liburu honetan gizatasunez beteriko adibideak kontatzen dira ehunka, batere pisurik ez balute bezala. Adiskide hitzaren esanahia ere hobeto ulertzen da liburu hau irakurri ostean. Baina batez ere, inolako erretolikarik gabe, euskaldun batzuek euren herriarentzat zein paradisu amesten zuten erakusten digu Kamiñazpik, eta bere umiltasunean adorea aurkitzen jakin duen gizon osoa eta eredugarria erakusten.

Zorretan gara berarekin eta balio beza gaurko honek, bere neurrian bederen, zorren zati bat kitatzeko. Eskerrik asko, Joxe Mari."

Hasier Etxeberriak (Berria egunkarian idatzitakoa)



Omenaldiaren hasieran, dantzari batek aureskua dantzatzuz Kamiñazpi, zinegotzi eta senideez inguratua, Udaletxeko Arkupeetan.

XXII. HKT txapelketa hasi da

Apirilaren 28 arte 31 talde lehiatuko dira Liga Txapelketaren bila

Urtarrilaren 13an hasi zen XXII. HKT Futbol Txapelketa, hainbat jendek oraindik Soroetako Txapelketa bezala eza-gutzen duena. Hondarribia Kirol Taldeak antolatuta, larunbatero belar artifizialeko zelaian ehundaka gazte biltzen dituen ekitaldia da.

Aurten 31 taldek eman dute izena, eta bakoitzak 18 fitxa dituela kontutan hartzen badugu, ez da biderkaketa zaila, 558 dira futbol-7an arituko diren gizonezkoak. Urtarrilaren 13tik apirilaren 28arte, astero egongo dira partidak, apirilaren lehen asteburuan ezik, Aste Santua dela eta.

Azken urteotan bezala, Lehen eta Bigarren Maila desberdintzen dira. Lehen Mailan, bi talde daude. A taldean, Pasaka, Distribuciones Egia, Decoexsa Gasteiz, Bar Ignacio, Talleres TV-FM, Jart/Taxi, Puu Zarpa el Tren eta Willy Ciclope daude. B taldean aldiz, Tecna, Estrella Roja, Beti Cycobask, Indima Nexmart, Edai Vending, Hotel San Nicolás, Master 30 eta Garaje de Luxe egongo dira.

Bigarren Mailan oster, C taldean honako hauek lehiatuko dira: Argos, Fla, Fonteneria Julian, Hotel Jauregi, Txingudi Xalasta, Nahi ta Nahiez eta Polo Troymec. D taldean azkenik, Txakarita Junior, Ashkorax, Pes United, Ondarribi Grafikagintza, Olagarro, Mendiak eta Herriak, Puertas Iraola eta Asador Baserri ariko dira.



HKT Txapelketa larunbatero ospatzen da

Hondarribia-Irun denboraldi bikaina burutzen ari da



Hondarribia-Irun saskibaloit taldea sendo dabil 2006-2007 denboraldian. Liga Txapelketan uste baina gehiago kosta zitzaion forma puntua hartzea, baina hartu ondoren, huts gutxi egin ditu. Urtarrilaren haseran, Jerez-en izan zen Erreginaren Kopa jokatzeko eta finalerdietan kanpoan geratu zen Europako talde indartsuen artean dagoen Ros Casares-en aurka puntu batez galdu ondoren. Aurretik, Bartzelonaren aurka garaipen bikaina lortu zuen.

Baina Hondarribia-Irunen aurpegi alaiena Europako Txapelketan ikusi ahal izan dugu, Eurocup deritzan txapelketan. Lehen fasean nagusitasun osoz lehen sailkatu zen bere taldean, eta final zortzi-renetan Sofiako CSKA gainditu ondoren Italia aldera joango da.

Hondarribia-Irun taldeko Razija Mujanovic fin dabil aurten



**eukeni
optika**

niretzat zuretzat guztiontzat

San Pedro 57 • 20280 Hondarribia
943 643 805

**Focus
DAILIES™**

Ikusmen egokitze-
mota guztietarako



Ikusmenaz goza ezazu



NI
nire
betaurrekoak
nire lentillak
Focus DAILIES



**CIBA
Vision**
© 2006 Ciba Vision Ltd.

Bidasoa bailararen deskribapen berri bat: 1819



Koldo Ortega

Étienne Boucher de Crèvecœur-ek idatzia, frantsesez dago eta iaz berrargitaratu zen

Hondarribiari buruzko informazioa ematen duten liburuak ugariak dira. Bertako historialariek, bertakoak ez direnek, kontatutakoak, egungoak direnak, eta nola ez, historiara pasa direnak. Hau da ale honetan dakar-kizueguna, askok ziurrenik ezagutuko ez duzuen liburu bat. "Bidassoa eta Pays Basque. Souvenirs de 1819" izenekoa, Étienne Boucher de Crèvecœur-ek idatzitakoa.

1791an jaioa, Behobi-ko aduanako burua izan zen urte askotan, eta horrek aukera ezinhobea eman zion gure bailarari buruzko ikuspegi zabal bat izateko. Bere iritziak liburu honetan bildu zituen, sei ataletan banatua, non Bidasoaren bi aldeko euskaldunen izaera, jokuak, abestiak, hizkuntza eta eguneroko bizitza aztertzen dituen, beste zenbait gauzen artean.

Lehenik eta behin, interesgarria da liburuan jorratzen den garaia bere testuinguruan kokatzea. 1819. urtean idatzita dago, eta orduko Hondarribiaren (eta Bidasoa bailararen) analisia egiten badugu, egoera tamalgarri batean aurkitzen garela ohartuko gara.

Hondarribia 1794. urtean Konbentzio Gerra dela eta jasan-dako galera erraldoietatik ezin zutitu zebilen. Armada frantsesak Gipuzkoan sartuko dira eta Irun, Hondarribia, Pasaia, Lezo eta Hernani hartuko dituzte. Donostiak borondatez entregatu zuen bere burua. Galerak izugarriak izan ziren.

Carlos Larrinaga Rodriguez-ek Hondarribiko Historia liburu-ko "Hondarribia 1789 eta 1875. urte artean: gainbehera baten historia" (271-318 orr.) artikuluan dioenez, '(...) ekintza horren ondorioz, Hondarribiak plaza militar izateari utzi zion. Ordura arte, Hondarribia eta Donostia izan ziren probintziako gune militar nagusiak, eta orduz geroztik, Hondarribiak Erdi Aroan eta Aro Modernoan zehar izandako ezaugarri bereizgarri hori galdu zuen. Aitzitik, XX. mendera arte itxaron behar izan zuen plaza militar izateko, Guadalupeko gotorlekua eraiki arte'.

"Bidassoa eta Pays Basque. Souvenirs de 1819" liburuia iaz birargitaratu zuen La Rochelle-ko La Découverte argita-letxeak. Aurretik, 1823an Pariseko Goetschy inprimategiak argitaratu zuen.

Ibilbidea herrian zehar

Boucher de Crèvecœur-ek Hondarribian zehar ibilbide bat egiten du. Amuteko Kaputxinoen Komentuan hasita, 16 apaiz biziko direlarik une honetan Amuten. Hortik Alde Zaharrera sartuko da Santa Mariako atetik. Etxe elegante-ak daudela dio, eta Eliza, Kale Nagusia eta Gazteluari buruz aipamen berezia egingo du.

Ondoren Portura jaitsiko da, "La village de la Madelaine" deitzen du berak, eta Hondarribiaren iragana arrantzalea



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean



Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

zela esango du, gaur egun antxoa eta atunetan dabilztan arrantzaleak geratzen direlarik.

Oinezko ordu erdiko ibilbidea egin ondoren, San Telmoko gaztelura heltzen da, bere hitzetan, "petit fort de Higuera" deitzen dena. Azkenik, Guadalupera helduko da, egileraren hitzetan, Hondarribiko biztanleen gurtze puntu ezinbestekoa.

Aurrerago esango duenez, euskal nortasuna mantendu egin da herrian, eta bailaran ere. Ez bakarrik hizkuntza aldetik, baita ohituren aldetik ere.


Liburua iaz argitaratu zen Frantziako La Rochelle hirian. Bidasoako bi aldeetako herrien deskribapena egiten du, herrien deskribapen fisikoa, eta baita hiritarren hizkuntza eta ohiturari buruzkoa ere. Egilea, Étienne Boucher de Crèvecœur, Behobiko mugako arduraduna zen liburua idatzi zen urtean, 1819an. Horrek ikuspuntu berezia eman zion lana idazterako orduan.



kai zahar

kai zahar
pub
almirante alonso, 12

truck
diskoteka
foru kalea, 13



jatetxea • restaurante
erretegia • asador
itsasargi 8 • 20280 • hondarribia
tel. fax 943 644 622 • kaialde@yahoo.es

"Hondarribia" aldizkariak

Doinua "Habanera"



Jexux Mari Mendizabal

Oharra: artikulu hau 20 urteak ospatzeko ale berezian agertzeko prestatu zen



Hogei bat urte lehenago
"Ondarribi" zen aurrena,
Oargi-ren eskutikan
kastillanoz zetorrena;
mila bederatzirehun -ta
laurogeita seigarrena,
martxoan "HONDARRIBIA"
jaio zen, baina, hurrena.

Hogei urtetan hilero
saiatu den bakarrena
geure hizkuntzan ekartzen
herritarrak elkarrena;
lehen orritik azkenera
euskaraz mami barrena:
hala luzaz iraun dezan
hemendik gure arrena!

Mixiko hitzak Alfonso
Oronozenak dakarzki;
mixikoz ere berari
egin zioten argazki.
Martin Ugalde, Artola,
Mayi, Ximon, Kamiñazpi...,
azken hogei urteotan
ai ene zenbat idazki.
Hamaika diren tokian
on-onak badire zazpi
euskaraz informatzeko
herriko goi eta azpi.
Hondarribiko berriak
(nahiago nuke egiazki!)
beste laurogei urtean
honalexe balekarzki.

bar-restaurante

arrantzaleen kofradia

Menú del Día Menú Especial
Carta
Pintxos Fríos y Calientes

Pº Iribarren, s/n -nueva lonja
20280 - HONDARRIBIA (Gipuzkoa)
Tel. 943 64 42 12

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etkez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

Autopistaz Donostira joateko zerbitzua jende gutxik erabiltzen du



Autobus zerbitzu berriaren etorkizuna kolokan dago

Gipuzkoako Foru Aldundiak Hondarribia eta Donostia autobusez elkartuko dituen zerbitzu berri bat abian jarri zuen uztailen. Orain arte eskaintzen den zerbitzua osatzera dator ekimen hau, eta berritasun nagusia, Irundik igarotzen ez dela da.

Autopistaz egiten du bidea eta horrek asko murrizten du ibil-bidea, eta ondorioz, denbora ere. Hain zuzenki, ordu erdi behar ditu bi hiriak lotzeko. Astelehenetik ostiralera beteko du bere funtzioa, hau da, lanegunetan.

Urte erdia baina gehiago igaro da, eta badirudi oraindik ez dela hiritar denen belarrira heldu. Autobus konpainiatik esan zaigunez, "jende gutxik erabiltzen du zerbitzu hau, eta hala jarraitzen badu, ez dakigu zenbat iraungo duen".

Ordutegiak

Hondarribitik lehen autobusa goizeko 7.20tan aterako da, Miramarretik konkretuki. Bere ibilbide zuzena Gipuzkoa plaza arte burutuko du. Hurrengo autobusa 8.20etan egingo du eta hirugarrena 9.40tan. orduoro autobus bat aterako da, eta eguneko azkena 19.40etan izango da. Alderantziz, Donostiatik lehen bidaia 7.50etan izango da, bigarrena 8.50etan, orduoro aterako, ordu bakoitzak hamar minutu betetzen dituenean (10.10, 11.10, 12.10...).

Kultura Departamentuak Ihauterietako lehiaketak deitu ditu

Udaleko Kultura Departamentuak beste urte betez, Ihauterietan batera, Karroza, Konpartsa eta Mozorroen lehiaketak antolatu ditu. Hiru atal desberdin dira, baina denak desfile berean doaz, Ihauterietako igandean goizeko 11.30etatik aurrera Kultura Departamentuak antolatzen duena.

Lehiaketa hauetan parte hartzeko, eskaera egiten duten talde guztiek egin dezakete, horretarako izenemate orria bete behar dute Udaletxeko BAZ bulegoan [astelehenetik ostiralera 09:00(e)tatik 13:30(e)tara eta 16:00(e)tatik 18:00(e)tara, eta larunbatetan 09:00(e)tatik 13:00(e)tara] **2007ko otsailaren 8a** baino lehen. Talde bakoitzak ordezkari bat izendatuko du eta honek arauak betetzen direla arduratuko da. Ezinbestekoa izango da parte hartzen duten karrozek inauteriko igandean ondorengo ibilaldia egin dezaten: San Juan de Diosen irteera, Sabin Arana, Beñat Etxepare, Matxin de Arzu eta San Pedro kalea.



Ihaute igandea aurten otsailaren 18an izango da

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

Guraso Eskola: urtarrilean saioak berriz hasten dira

Datorren asteetan Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuak, Talaia eta Ama Guadalupekoako ikas-tetxeetako Guraso Elkarte eta azken honen zuzendaritzaren elkarlaguntzarekin, gurasoei zuzenduriko formazio ekintza martxan jarriko du.

Lehen hezkuntzako gurasoei eskainitako programa talde ezberdinetan ematen da: adina eta hizkuntza. 2006ko azarotik 2007ko martxora arte irauten duten programara ehun hondarribitar inguru etortzen dira.

Bi urtez jarraian, guraso eskoletan haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako gurasoen etorrera altu bat nabarmentzen da.

Gurasoei zuzendutako eskola, Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuak duela 10 urte garatzen joan den proiektu bat da, hainbat formatutan, azken hau arrakasta gehien izaten ari delarik, bere inpaktuagatik eta partaideek egiten duten ebaluaketagatik.

Guraso eskolen funtzioa funtsean hezigarria da eta aurreko kolektiboaren interesetan oinarritutako programa jarraitzen da, honen gai hurbilak lantzen direlarik. Bestalde, gurasoentzat harreman eta elkar-jatze esparru bat sustatu nahi da. "Liburuetan ez da ikasten guraso izaten...", haurrak eskulibururik gabe etortzen dira... entzuten zaie maiz gurasoei esaten. Dena den, gehienek bere esperientziarekin erlazionatutako gai eta zalantzei buru informazioa jasotzeko aukera baloratzen dute. Saioan lantzen den gaitik habiatuta, irtenbideak aipatzen dira eta profesional baten aholkuak jasotzen dituzte. Hauek dira zerbitzu honek hondarribiar familiei eskaintzen dien oinarritzko elementuak.

Hilabete honetan zehar programatutako saioak honako hauek dira:

Urtarrilak 15	AMA	HAURTZAROA 10 urte arte	"Aisialdia eta familia" Aisialdi eta denbora libreari buruz orientazio hezitzaileak.
Urtarrilak 22	TALAIA	HAURTZAROA 10 urte arte	"Aisialdia eta familia" Aisialdi eta denbora libreari buruz orientazio hezitzaileak.
Urtarrilak 24	TALAIA	NERABEZARO AURREKO GARAIA / PREADOLESCENCIA (10-12 urte)	"Ikasi eta ezberdintasunak onartu" Familian, aniztasunean heziketarako orientazio batzuk.




Ireki berria. Salmentak, erosketak eta alokairuak.

San Pedro, 1 - Hondarribia
Tel.: 943 11 03 38 - 669704686 - 619411542

Produktu ekologikoak jateko10 arrazoi

Osasuna, ingurugiro eta animalien babesa eta zaporeak dira produktu hauek jateko dauden arrazoiak

Osasuntsuak direlako

Produktu ekologikoak besteak baino osasungarriak dira hondakin toxikoak (pestizidak, antibiotikoak, gehigarriak, eta abar) ez dituelako. Substantzia artifizialak ez dituztenez, gorputzak arazorik gabe bereganatzen ditu metaboliko eginkizunak aldatu gabe.

Gehigarri sintetikorik ez daukatelako

Produktu ekologikoek ez dituzte gehigarri sintetikorik, osasun arazoak eragiten dituztenak: gutxiegitasun kardiakoa, osteoporosia, migraina eta hiperaktibitateak. Produktu mota hauek orekatuak dira eta elikagai ugari dauzkate.

Pestizidak ez dituztelako

Pestiziden erabilera nekazariarentzat ere oso kaltegarria da. Gainera, sustantzia hauek ingurugiroari kalte egiten diete eta gizartearen kostu gehigarria dauka, naturan uzten dituzten hondakinak eliminatu behar dituelako.

Organismo genetikoki aldatua ez dutelako.

Produktu genetikoki aldatua erabiltzen dituen laborantza, berdintasun genetikora zuzentzen da, horrela barietateen gainbe-

hera eragiten da. Hala ere, nekazaritza ekologikoak produktu genetikoak mantendu nahi ditu eta horrekin laborantza paisaien aberastasuna.

Antibiotikorik ez dituztelako

Abeltzaintza ekologikoan animaliak ez dira antibiotikoekin tratatzen. Albaitariak produktu homeopatikokoak erabiltzen dituzte, horrela aberreak prebentzio moduan zaintzen dira.

Ingurugiroarekin jasangarriak direlako

Produktu ekologikoek ingurugiroa errespetatzen dute. Ekoizkin hauek jaten ditugunean, ingurugiroaren mantentzearekin lan egiten dugu. Nekazaritza mota honek egiten dituen funtzio batzuk hauek dira: karbono dioxido gutxiago sortarazten ditu, berotegi-efektua saihesten du, energia aurrezkiari laguntzen dio.

Kalitate nibel maximoak dituelako

Produktibitate katean erabiltzen diren lehengaiak kontrola eta ikuskapenari lotuta daude, elaborazioa eta ontziratzea ere bai.

Animalien ongizatearekin begirunea dutelako

Animaliak bere erritmo naturalean handitzen dira baldintza honetan. Produkzio handiagoa lortzeko ez daude artifizialki maneiatuak. Ez dira intseminazio artifizial eta hormonak erabiltzen.

Naturarekin begirunea dutelako

Nekazaritza ekologikoak egiten duena: lurra ongarritu, desertifikazioak gelditzen ditu; uraren atxikitzea eta espezie askoren bizitza lagundu.

Zaporetsuak direlako

Artesanalki eginak daudenez zapore hobeagoa dute. Landareak organikoki leheneratuta eta ongarrituta daude, orduan gaitzik gabe erabiltzen dira bere zaporea eta aroma konserbatzen dute.



Ofertas *Eskaintzak*

-Lima txokolatezko batidoa 200ml:

1,10€

2 + 1 dohainik

-QI Te berdea mentarekin: 3,65€

2 unitate % 30

-Buonbio arto tortak 200gr: 3,70€

2 unitate % 30

.Arreta pertsonala


EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



EZ DADILA EGUZKIA SARTU


Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramane zizuten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina

baloia ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariak, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriez, Euskadiko selekzioa osatuz eta Europan barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIA ETA IRUNGO EUSKARA

Hondarribiko eta Irungo hizkerak dialektologi alderditik aztertzea da liburu honen helburu nagusia: hizkuntz ezaugarri eta arau nagusien bilduma egin, eta zein ezaugarrietan diren berdinak eta zeinetan ez agertzea. Era berean, hizkerok euskalkien sailkapenean dute kokaguneari buruzko argibideak ematea



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituenak. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri"k idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Historiagutietatik frankismora arte. Horretarako 15

historialariko taldearen lankidetzak izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidaragarrtasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagarzazu.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel karabana batean bizi da gurasoekin, arrebeekin eta aitonarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorak tirata, edo suaren garrantzia, suak berotatzen ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die guztiei.



PASEOS POR LA CIUDAD

Hirien barrena irudimezez ibiltzen lagunduko dizu liburu honek, inguruari erreparatzeko eta etxe edo ikuspegi baten aurrean gelditzea gonbitea egingo dizun testu baten laguntzaz. Testuarekin batera modu eraginkorrean, irudimena piztuko dizuten akuarelak, marrazkiak, irarlanak eta argazkiak azalduko zaizkizu.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

**San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25**

"GAZTEAK EKINEAN" PROGRAMA

Europako Gazteak Ekinean programa hasi berria da eta 2013ra arte luzatuko da.

Gehienbat, 15 eta 28 urte bitarteko gazteei zuzenduta egongo da, nahiz eta egintza batzuk 13 eta 30 urte bitartekoentzat ere irekita egongo diren.

Programa horrek, besteak beste, gazte-taldeen trukeak egiteko eta boluntario-lanetan aritzeko, bai Batasunean bertan, bai beste herrialde batzuetan. Gainera, laguntzak ematen zaizkie gazteen sorkuntza eta espiritua sustatzen duten proiektuei.

Informazio gehiago nahi baduzu sartu www.gazteaukera.euskadi.net-en edo etorri bulegora!

Hemen zalantzak argituko dizkizugu!



Urte berri
hasierarekin,
zer egin?

2007ko Inauteriak

Inauteriak gustokoak al dituzu?

Ba orduan ez pentsatu eta aurkeztu zaitez Hondarribian antolatzen diren lehiaketetan. Hiru aukera dituzu: Mozorrotuen lehiaketa, Konpartsa lehiaketa eta karrozen lehiaketa.

Zurea ona eta bitxia dela uste baduzu, animatu zaitez!!!

Izena emateko epea: otsailaren 8-a, osteguna Udaletxe-ko BAZen.

Info gehiago Gazte Informazio Bulegoan



Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56



San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia

Zein zen etxe honen funtzioa XX. mende
hasieran?



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Iazko azken alean jarritako galderari ia 50 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Joana Aguirre Bandres**. Berak esan bezala, bide hau "Asto bidea" bezala ezagutzen da.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Guztiok badakigu etxe hau gaur egun Psilocybe musika elkarteak erabiltzen duela beren entsaioetarako lokal moduan. Galdera errezegia litzateke hori, eta orduan, duela 80 urte, Gerra Zibila aurretik, etxe hau zer zen galdetzen dizuegu. Adineko jendeak jakingo du, baita auzokoek ere.

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Batzordera otsailaren 9a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.

SAGARDOTEGIA JATETXEA

*Horra hor goian errota
irina pur pur ihota
ondo jan eta edan paketsu eta alai
hor duzue Beko-Errota*



JAIZUBIA • Tel. 943 64 31 94 • 20280 HONDARRIBIA

Sokamuturra duela 50 urte



Hondarribiaren historiaren lekuko diren irudiak argitaratzen ditugun atalera iritsi gara berriz. Udal Artxibategiak daukan altxor haundiari etekina ateratzea da atal honen helburuetako bat, baina hilero ez da zertan argazki berdinak atera behar.

Oraingo honetan, gutxi gora behera duela 50 urteko argazki eder bat dakarkizuegu, ez baitakigu zehatz-mehatz noizkoa den. Sokamuturra gaur egun Bentan ospatzen da, hala ere, ez da lehen zen bezain ikusgarria, egun ez baita uretara jaisteko aukerarik ematen.

Irudia Jose Mari Castillo irundarraren "Argazkiak Hondarribia Atzo" liburutik hartutakoa da, 244. orrialdean. Egileak zita interesgarri bat gehitzen du argazki oin bezala: "1754.an, Larramendik zera zioen sokamuturrari buruz: zeruan zezen-korridak egongo balira, gipuzkoarrak, denak santu, haiek ikustera joa-teko".

Era honetako argazkiak dituzuenok eta Hondarribia aldizkarian argitaratzea nahi duzuenok, Udal Euskara Batzordera eramatea besterik ez duzute.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



arroka berri
r e s t a u r a n t e

Hiçer Bidea, nº6 - 20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com



Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

Abendua2006

JAIOTZAK

JAIOTZAK AZAROAN

16an: NORA Osoro Ursulyan, Elgoibarko Iñigo Valentin eta Storoziñez-ko (Ukraina) Katerynaren alaba.

16an: NAHIA Osoro Ursulyan, Elgoibarko Iñigo Valentin eta Storoziñez-ko (Ukraina) Katerynaren alaba.

JAIOTZAK ABENDUAN

3an: MARINA Jimenez Guerra, Donostiako Oscar eta Tolosako Maria Carmenen alaba.

3an: PABLO Jimenez Guerra, Donostiako Oscar eta Tolosako Maria Carmenen semea.

7an: NAHIA Melara Otamendi, Usurbilgo Manuel eta Donostiako Nataliaren alaba.

7an: NEREA Orbegozo Sagarzazu, Donostiako Carlos eta Hondarribiko Garbiñeren alaba.

10ean: HIART Moran Aginagalde, Irungo Asier eta Aretxabaletako Hiarten alaba.

12an: GORETTI Zapirain Larrarte, Hondarribiko Jorge Eduardo eta Hondarribiko Ainhoaren alaba.

15ean: DANEL Cuevas Caballero, Donostiako Juan Ignacio eta Donostiako Anaren semea.

15ean: KEPA Manterola Diez, Irungo Kepa eta Irungo Mariaren semea.

18an: BRUNO Gomez Latasa, Donostiako Ignacio eta Irungo Amaiaren semea.

21ean: AMAIA Barandiaran Lazkanotegi, Pasaiaiko Kepa eta Hondarribiko Ana Isabelen alaba.

23an: LUCIA Gomez Olaskoaga, Lesakako Jesus Maria eta Hondarribiko Maria Jesus del Maren alaba.

23an: TOMAS Kanpandegi Arretxe, Hondarribiko Samuel Lorenzo eta Irungo Estibalizen semea.

23an: AMAIA Zubizarreta Amunarriz, Donostiako Carlos eta Hondarribiko Cristinaren alaba.

28an: ADARA Molina Prieto, Irungo David eta Donostiako Ana Belenen alaba.

29an: NAHIA Ugartemendia Andrino, Ordiziako Sabino eta Donostiako Maria Soledaden alaba.

30ean: UXUE Lekuona Canoura, Hondarribiko Igor eta Hondarribiko Ainararen alaba.



EZKONTZAK



2an: URBANO BORJA Emazabel Zamora, Hondarribikoa, eta **ANA Intxaurren Satrustegi**, Donostiakoa

HERIOTZAK

5ean: MARIA PILAR Sanchez Echezarreta, Donostiakoa, 92 urte, Lezo plazan

5ean: MARGARITA Gonzalez Lekuona, Hondarribikoa, 79 urte, Bernat Etxepare kalean.

5ean: INES Labandibar Ugarte, Hondarribikoa, 72 urte, Eliazazpi beserrian.

6an: MODESTA Martin Caballero, Palma de Mallorcakoa, 88 urte, San Gabriel egoitzan.

11n: EULALIA Iridoi Miranda, Hondarribikoa, 97 urte, Irungo Ama Xantalen egoitzan.

13an: MARIA MICAELA Anzisar Arozena, Hondarribikoa, 91 urte, Malagako karmeldarren komentuan.

13an: PIO Sarasola Lekuona, Oiartzungoa, 70 urte, Amute kalean.

13an: ANGELES Larruskain Sunsundegui, Hondarribikoa, 81 urte, Ama Guadalupekoa kalean.

17an: JUAN MARIA Errazkin Darzeles, Hondarribikoa, 84 urte, Zubieta kalean.

25ean: ASUNCION Lekuona Zubillaga, Hondarribikoa, 81 urte, San Gabriel egoitzan.

27an: JUANA Darzeles Olaso, Hondarribikoa, 68 urte, Ama Guadalupekoa kalean.

28an: VICTOR Amunarriz Esponda, Hondarribikoa, 74 urte, San Pedro kalean.

28an: JOSE MARIA Etxaburu Etxaburu, Ondarrukoa, 93 urte, Amute kalean.

28an: ISABEL MARIA Arribillaga Urtizberea, Hondarribikoa, 77 urte, Amutalde kalean.

29an: MARIA DOLORES Alza Telletxea, Hondarribikoa, 64 urte, Ama Guadalupekoa kalean.



ABENDUKO EGURALDIAREN DATUAK.
(Hondarribiko aireportutik jasoak).

Temperaturarik gorena:	21,8° C, hilaren 31n.
Temperaturarik beherena:	-1,4° C, hilaren 23an.
Bataz besteko tenperatura:	8,6° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 74
Euri-litroen kopurua:	146,5 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 6an 47,2 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 8ko 5,15etan, 34,2 litro.
Egun euritsuak:	9 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak:	1 egun
Ekaitz egunak:	3 egun
Behe-laino egunak:	3 egun
Ihintz egunak:	11 egun
Eguzki kopurua:	65,6 ordu
Bataz besteko presioa:	1025,4 milibar
Presiorik gorena:	1036,1 milibar, hilaren 21ean
Presiorik beherena:	995,1 milibar, hilaren 8an
Haizea >55 Km/ord.	3 egun
Haizerik indartsuena:	hilaren 8ko 6,40tan, 95 Km/ord.

ARRANTZALE KOFRANDIAN ABENDUAN
SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (*Trachurus trachurus*): 2.051,50 kilo
Lanpo (*Euthynnus pelamis*): 4,20 kilo.
Dorada edo Urraburu (*Sparus aurata*): 7,10 kilo.
Boga (*Boops boops*): 576,10 kilo.
Zapatari (*Gerris*): 802,40 kilo.
Erla (*Lithognathus mormirus*): 808,70 kilo.
Makarela (*Scomber japonicus*): 1.417,40 kilo.
Korrokoi (*Chelon Labrosus*): 4,40 kilo.
Muxar handia (*Diplodus sargus*): 27,50 kilo.
Bestelakoak: 6,50 kilo.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK
ABENDUAN

Altak:Jaiotzak: 18, eta kanpotik etorriak: 33
Bajak:Hildakoak: 14, eta herritik joanak: 32
Biztanle kopuru orokorra: 16.404 bizilagun.

ABENDUKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 361 euskaraz, 1088 gaztelaniaz eta 53 bestelakoak. Guztira: 1502 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 9 euskaraz, 57 gaztelaniaz eta 0 bestelakoak. Guztira: 66 liburu.

Bazkide berriak: 8 gizon eta 17 emakume. Horietatik 18 heldu eta 7 haur. Guztira 25.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

*Euskeraz:*GENECHTEN, Guido Van.- Maitagarria zera-lako.- Ibaizabal.

*Gaztelaniaz:*IBAÑEZ. -Las mejores aventuras de Mortadelo y Filemón.- Ed. B.

Helduak:

*Euskeraz:*ARANA, Aitor.-Errege hilobia. - Elea.

*Gaztelaniaz:*FALCONES, Ildefonso.- La catedral del mar.-Grijalbo.

Joski

. LENTZERIA ARROPA
. HAURRENTZAT ARROPA

Hurrengo irekiera: Matxin de Artzu kalean, 18 zenbakian

Santiago Kalea, 21 Tel.: 943 64 17 65
20280 HONDARRIBIA





Argazkia: "Argazkiak, Hondarribia atzo"
Jose Maria Castillo

www.doble-a.com

Amute 8 - behea C Hondarribia
Telf.: 943 667 003

Kortinak
Oihalak
Margo-papera
Jardineko altzariak